

Botoak nola kutxen geroa hala



ARGAZKI PRESS/M. V.



ARGAZKI PRESS/GARI GARALALDE



ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO

BBK (Bizkaia), Kutxa (Gipuzkoa) eta Vital Kutxa (Araba) bakoitza bere lurraldean zein lurraldetik kanpo ari da hedatzen. EAEko finantza erakunde horien etorkizuna, hau da, bakoitzak bere aldetik jarraitu edo elkartu, udal eta foru hauteskunderen baitan dago.

DANIEL UDALAITZ

HIRU AURREZKI KUTXEK duela bi urte ofizialki bat egingo zutela iragarri zuten eta arrazoi politikoak medio, gelditua eta zapuztua geratu zen prozesua. Bategiteari bultzada berria eman, edo bakoitzak bere bideari segi, maiatzeko hauteskundetako emaitzen baitan dago. Izan ere,

aurrezki kutxa horiek bakoitza bere herrialdeko alderdi politikoek gobernatzen dituzte.

Bitxia da: bien bitartean, azkenean bi urte hauetan, kutxa bakoitza bere probintziatik kanpo hedatu da eta hedatzen ari da, baita bizilagun dituen kutxen probintzietan ezar-

tzen ere. Horrek urratu egiten du elkarren merkatua errespetatzeko beti mantendu izan duten politika. Gainera, Nafarroako Aurrezki Kutxak (CAN) ere, beste hiru kutxekin bategite prozesutik kanpo egon arren, hedatze prozesua abiatu berri du.

Lau kutxek hedatzen jarraitzen dute

Lau kutxek 1.300 bulego dituzte eta sare horretatik 540 baino gehiago daude, gaur egun, bere lurraldetik kanpo. Nafarroako Aurrezki Kutxaren (CAN) erabakia deigarria da, izan ere EAera hedatu da lehen aldiz, eta 2008rako 50 bulego izatea aurreikusi du. Hala, 2008an, CANek 232 bulego edukiko lituzke Nafarroatik kanpo, eta ia 200 inguru, Nafarroako Foru Erkidegoan.

BBK-k 385 bulego zituen 2006 amaieran: 240 Bizkaian eta 145 bere lurraldetik kanpo. Aurten 45 bulego

zabaltzea aurreikusi du. Horietatik bat Nafarroan zabalduko du, 16 Andaluzian, 12 Levanten, eta beste bat Kantabrian. Kutxak 278 bulegoko sarea zuen 2006an; horietatik 145 EAetik kanpo, bost Frantziako Estatuan, eta aurten bertan beste 50 bulego zabalduko dituela iragarri du. Azkenik, Vital Kutxako sareak 99 bulego ditu Araban eta 22 bere lurraldetik kanpo. Aurten bertan bulego berriak zabaltzeko asmoa du Iruñean, Zaragozan, Burgosen, Toledon, Guadalajaran, Parlan eta Gasteizen eraikitzen ari diren hiru auzotan.

Kutxak alderdi politikoen kontrolpean

Egungo legediaren arabera, alderdi politikoen, Foru Aldundietan eta udaletan daudenek erabakitzen dute, finean, aurrezki kutxa bakoitzaren etorkizuna. Orain arte bategite prozesua gauzatu ez bada, horrexegatik izan da, erakundeak kontrolatzen dituzten alderdi politikoen artean ez delako akordiorik izan. Nahiz eta, oro har, ikuspegi tekniko, ekonomiko eta finantzariotik Aurrezki Kutxen bategitea aukera egokiena, koherenteena, are errentagarriena izan, irizpide politikoen galarazi dute bategite prozesua gauzatzea.

Laburbilduz, EAJ, PSE, EA, EB eta ezker abertzalea, bakoitza bere ñabardurekin, bategitearen aldekoak izan dira eta badira; PP, aitzitik, kontra agertu da. Eta PP da, egundaino, Arabako Vital Kutxaren zuzendaritza organoak kontrolatzen dituen. Datozen udal hauteskundeetako emaitzengatik PPK Vital Kutxaren kudeaketa kontrolatzeari utziko balio, eta beste herrialdeetan egungo indar erlazioa mantenduko balitz, bategite prozesuak bultzada berria jaso lezake berehala, eta aukera legoke epe motzean EAerako kutxa bakar bat lortzeko eta kutxa hori Espainiako Estatuko finantza erakundeen artean aurreko lerroan jartzeko.

Alferrik galdutako bi urte

Duela bi urte iragarri zuten ofizialki, hiru presidenteak han

PPk, Arabako

Vital Kutxa

kontrolatzen duen

alderdiak,

Kutxa eta BBKrekin

bategitearen kontrakoa

izaten

jarraitzen du

zirela, EAEko Aurrezki Kutxen bategite eta integrazio prozesua. Egungo marko juridiko politikoa eta indar banaketa dela eta, hasierahasieratik baztertu zuten Nafarroako Aurrezki Kutxa bategite prozesu horretatik. Azken urteotan, lau Kutxen artean izan dira akordio batzuk, baita sinergia gisako batzuk ere –Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioko kide dira Nafarroakoa eta EAEko hirurak–, eta nork bere probintzian lan egiteko elkarrenganako errespetua ere gorde

Olaizola
SAGARDO NATURALA

TOLARE

Olaizola anaien egina
Tel.: 943 33 67 31 - 690 69 84 84
Osaga Auzoa, 38 - HEINANI (Gipuzkoa)
Aste Santuan irekita • Apirila bukaera arte irekita

Lauen irabaziak

2006an Hego Euskal Herriko lau kutxek 640 milioi eurotik gorako irabazi garbiak izan zituzten gutzien artean. BBK-k 251 milioi euro irabazi zituen, 2005ean baino %26,7 gehiago; Kutxak 194,2 milioi euro irabazi zituen, %10,3 gehiago; CANek 140,8 milioi euro, %31,2 gehiago; eta Vital Kutxak 61,5 milioi euro, %10,2 gehiago.

da. Hori guztia apurtu egin da azken aldian, eta denak ari dira hedatzen aukera handienak dituzten lekuan, nahiz eta ondoko kutzaren herrialdean izan.

Aurreko urtean, behin eta berriro entzun genituen bategitearen aldeko jarrera duten euskal Kutxetako presidenteen adierazpenak; “prozesuak indarrean dirauela” nabarmendu zuen adibidez Xabier Irala, BBK-ko presidentea. Bategitearen ondorio ekonomikoei buruz eginiko azterketa tekniko batek dioena aintzat hartuta, “orain kutxa bakoitzak duen balioa batuta baino %50 balio handiagoa izango lukete hirurak bat eginda baleude”. Gregorio Rojo Vital Kutxako presidentea EAEko eta Nafarroako gainerako kutxekin aliantza estrategikoak lortzearen aldeko interesa azaldu zuen, baina segituan, batzarrak baztertu egin zuen integrazio egitasmoa. Hurrena, Carlos Etxepare Kutxako presidentea zera adierazi zuen: “[hiru Kutxen bategiteak] beste maila batean jokatzeko ahalbidetuko liguke, Champions-en”. Aurretik, BBK-ko presidentea esan omen du euskal Kutxen elkarrekin aurtur zehaztuko dela. PPko Arabako diputatu nagusiak berehala gaitzetsi du aukera hori. ■

BOS
Bilbao Orkestra Sinfonikoa

**06
07**

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA
Zuzendaria Titular eta Artistikoa / Director Titular y Artístico, Juanjo Mena

APIRILA • ABRIL 12 - 13
Udaberriko kontzertua • Concierto de primavera
Colaboración BOS•Guggenheim Bilbao Lankidetzeta

H. Villalobos: Uirapuru
H. Villalobos: Concierto para armónica y orquesta
P.I. Tchaikovsky: Sinfonía nº 1 en Sol menor, op. 13

Gianluca Littera, harmonika/armónica

John Neschling, zuzendaria/director

Armónica Vs Orquesta según Villalobos

Informazioa / Información		Babeslea / Patrocinador	
ordutegia / horario	lekua / lugar	prezioak / precios	BBKren Gerra balain batzua, sarrerak 2€ eta abonak 10€
20:00	Palacio Euskalduna Jauregia	24,00 € 12,00 €	BBK26
T. 94 40 35 205 www.bilbaorkestra.com		gazteak / jóvenes (-27)	Si tienes la Rojo de BBK, entradas 2€ y abonos 10€
		7,50 € 4,00 €	